



I. ATALA TXILLARDEGIREN LANAREN OMENEZ

>>>

4

EUSKAL HERRIA ETA EUSKARA

Pilartxo Etxeberria Murua

EHUko irakaslea

Helbide elektronikoa: fvpetmup@ehu.es

BAT Soziolinguistika Aldizkariak Txillardegiri egingo dion omenaldia dela eta, hona dakardana ez da erabateko zehaztasunez egokitzen aldizkariak jarraituko duen egiturara. Esaterako, ez diet Txillardegiren lan gramatikal edo soziolinguistikoei helduko, ez ezinkizun delako, nire ezagupenen mugak mugatzen nautelako baizik.

“Euskal Herria eta euskara” zimentarri izanik, horietan bil liteke Txillardegi maisuaren ibilbidea. Gazte gaztetandik agertzen du hizkuntzarekiko kezka eta ardura bizia. Beraz, ez da harritzekoa, hizkuntzari lotutako hainbat artikulu, saiakera eta liburu-egile oparoenetakoa izatea; orobat, Euskal Herria bihotzean eta gogoan, herriaren aldeko lanari eta borrokari ia mende erdia eskaintzea.

*Euskararen azterketara, hizkuntzak berak eragin dion hizkuntzalari *engagé* dugu Txillardegi.*

Euskaltzaletasunak bultzatuta euskarari lotutako alor ugari landu, ikertu eta irakatsi ditu, besteak beste: gramatika, fonetika, fonologia, prosodia, euskararen batasuna (idatzia eta ahozkoa) eta soziolinguistika.

Nahiz eta jorratu dituen eremuak ugari izan, nik neuk, elkarren osagarri diren euskarari buruzko zenbait gogoeta, euskal fonologia, prosodia eta ahoskera batuaren inguruko ekarpenak izango ditut hizpide ondorengo lerrootan.

1. EUSKARARI BURUZKO GOGOETAK

Euskal fonetikaz, fonologiaz eta prosodiaz egin dituen ikerketak aldeztu aurretik egindako lanen jarraipen direnez, horien aipamen laburrari ekingo diot lehenik.

Ondoren, XX. mendeko hizkuntzalaritzaren eskutik, besteak beste, estrukturalismoaren eta generatibismoaren ildotik¹ abiatuta teorizatu eta deskribatu dituenak (esaterako, “Hizkuntza eta pentsakera” (1966), edo *Euskal fonologia* (1980) edo *Euskal azentuaz* (1984)) izango ditut hizpide.

Azkenik, ahoskera zainduaren ingurukoak izango dira mintzagai.

Txillardegik, euskarari buruz egindako gogoetei helduaz, 1956an “Ez bat eta ez beste” (“Euskararen Auziari Buruz”) argitaratu zenean Txillardegik ikasketa formalez hizkuntzalari ez bazen ere, ezagun du ederki asko ezagutzen dituela hizkuntzaren atze-aurreak eta euskal idazle klasikoaren lanak. Pentsamendu sakona agertzen du hizkuntzaren inguruko gogoetak egiten dituenean, garai honetan garbizaleek gramatikaren, lexikoaren,... eta hainbat alorretan hizkera berri bat asmatzeko egiten ari ziren ahaleginak direla-eta, uste du, hizkuntzaren kontuak pentsabide argiagotz aztertu behar direla hiztunen erabilera errealean oinarrituz. Honela dio:

“euskara ez da guk nahi duguna, edo nahi dugun bezalakoa,... dena da... hor dago, hor bizi da, herriaren ahotan,... sorkari biziak dira hizkuntzak, urteetan zehar gu gabe bizi izan direnak, eta gero ere gu gabe bizi daitezkeenak”².

Zail da zati labur honetan gardenago adieraztea zer den euskara: mintzabide eta adierazpide da. Hiztunon bizitzak baino askoz ere iraupen luzeagoa dute hizkuntzen bizitzak. Hau da, gure aurrekoek egiten zutelako eta irakatsi zigutelako egiten dugu eta egiten dugulako egingo dute gure ondorengoek katea mendez mende, milurtez milurte luzatuz.

Artikulu berean aurrerago, hizkuntzaren izakera hizpide hartuta honela dio:

“bizi-legeak dituzte, eta haien bizitza eta izakera galtzorian ez jartzeko, haie-txei lotu behar, mintzo-legeak gordetzean baitatza hizkuntzaren bizia bera” (13or.)

Alegia, hizkuntza bakoitzak bere izate berezitua edo bere tipologia berezia duela, hiztunok barne-paradigmatan edo gogo-barrunbeetan ongi sustraituak ditugula hizkuntzaren ezaugarriak (edo bizi-legeak Txillardegiren hitzetan esanda) eta barne-gaitasun horrek ematen digula bidea eta neurria prosodiari esker hotsak kateatuz eta uhin akustikoetan kanporatuz mintzatzeko. Bada pasarte laburtxo horretan (aurrerago gehiago zehaztuko du) puntu mamitsu bat: batetik, hizkuntzaren iraupenaz eta osasunaz dioena, eta bestetik, hizkuntzaren egoera larriaz edo heriotzaz iradokitzen duena.

Pentsamendu sakona agertzen du hizkuntzaren inguruko gogoetak egiten dituenean, garai honetan garbizaleek gramatikaren, lexikoaren.

“Euskara ez da guk nahi duguna, edo nahi dugun bezalakoa, ... dena da ... hor dago, hor bizi da, herriaren ahotan, ... sorkari biziak dira hizkuntzak, urteetan zehar gu gabe bizi izan direnak, eta gero ere gu gabe bizi daitezkeenak”.

***Aditzera ematen digu,
mintzo-legeak gorde
behar ditugula, hizkuntza
bakoitzak bere-bereak
dituen legeak, alegia;
baina bizia den aldetik
aldakorra da, ezaugarri
zenbait aldatuz joan ohi
dira hiztunok egiten
dugun jarduera delako eta
horixe delako bizi den
hizkuntzaren berezko lege
eta ezinbesteko joera.***

***Txillardegik dio, uste
ustelak alde batera utzi
eta euskararen beharrak
ongi ezagutu behar direla
aurrerantzean eginkizun
praktikoak zuzen
bideratzeko, erabat
beharrezkoak direlako
euskara gaitu, batu eta
osatzeko.***

Osasunari bagagozkio, aditzera ematen digu, mintzo-legeak gorde behar ditugula, hizkuntza bakoitzak bere-bereak dituen legeak, alegia; baina bizia den aldetik aldakorra da, ezaugarri zenbait aldatuz joan ohi dira hiztunok egiten dugun jarduera delako eta horixe delako bizi den hizkuntzaren berezko lege eta ezinbesteko joera.

Hala ere, aldatze hori, osasun onaren seinale izango da baldin eta hizkuntzaren barnetik, barne-ezaugarrietatik egiten bada, eta alderantziz, berriz, aldatze hori erabat kaltegarri izango da, interferentzien eraginetatik edo hizkuntza berri bat asmatzetik badator, “*asmatzeko eskubiderik ez dugu, ... ezin asma dezakegu deus ere*”³

Garratz mintzo da, aldaketak sakonak inguruko hizkuntzen eraginetatik, interferentzietatik datozenak direnean epaitzerakoan:

*“erdalkeria horiek, ... eboluzioaren aldaketak direla esan omen daiteke. Baina horiek ez dira, ... eboluzioaren seinaleak, herio-ikurrak baizik... gaurko euskara ez da oso bizia, erdal kutsua toki guztietan sartu zaigu eta erdaraz pentsatzen dutenak uste dugun baino askoz gehiago dira”*⁴.

Edota, ahuleziak jota hiztunek euskara halamoduz lardaskatuta erabiltzetik edo ez egitetik datorrenean hizkuntzaren beherakada:

*“euskaltzale garen guztiok bihotzondoan iltzatuta daramagu euskararen galera”*⁵.

Euskararen egoera larriaz kezkatuta, egin beharrekoaz ohartuta ondokoa dio:

*“euskararen historia eta gaurko egoera aztertu behar dira edozein gauza erabaki baino lehenago”*⁶.

Berriz ere, erabateko gaurkotasuna duen pasarte dugu. Hizkuntzaren zeinahi alor finkatzerakoan eta nondik-norakoak erabakitzerakoan, lan teorikoaren eta praktikoaren beharraz ohartarazten du.

Gaur egun oraindik barneratuak ditugun zenbait mito ere mintzagai ditu: “hizkuntza garbiaren” mitoa “*hizkuntza bizietan ez dago garbikeriarik*”. Izan ere, hizkuntzak ez dira garbiak edo zikinak, garbizaleak edo mordoilozeak, hiztunok gogo-barrunbeetan duguna adierazteko ahoz egiten dugun erabileran aurkitu beharko da garbitasuna edo zikinkeria, ez hizkuntzan; ongi barneratutako beste mito bat: “*euskarak ez duela ezertarako balio*”⁷. Txillardegik aldarrikatzen du edozein gausatarako gai dela euskara.

Azken buruan, sinestarazi digute eta barneratu izan dugu gureak ez duela ezertarako balio. Gutxiestearen zulotik ateratzeko, Txillardegik dio, uste ustelak alde batera utzi eta euskararen beharrak ongi ezagutu behar direla aurrerantzean eginkizun praktikoak zuzen bideratzeko, erabat beharrezkoak direlako euskara gaitu, batu eta osatzeko.

2. EUSKAL FONETIKA, FONOLOGIA, AZENTUA ETA AHOSKERA

Euskal fonetikaz, fonologiaz eta prosodiaz egiten dituen ikerketak aurreko lanen osagarri eta Ahoskera Batuaren euskarri izango dira.

Euskara idatziaren normalizazioan (corpus-ean eta estasu-ean) aitzindari izan dela esan badaiteke⁸, beste horrenbeste esan behar Ahozko Batuari buruz, alegia, aitzindari eta sustatzaile nagusi dugula honetan ere.

Txillardegik da nire ustez Ahoskera Batuaren beharra behin eta berriz aldarrikatu duena, alderdi horren ezinbestekotasunaz euskal hiztunak sentiberarazi dituen, eta ahoskeraren batasunaren alde funtsezko lana egin duena.

Ezin konta ahala dira, ahoz eta izkribuz, Euskara Batuaren Ahoskerari eta prosodiari buruz, azaltzen dituen irizpideak eta proposamenak. Ezagunenei so eginez, besteak beste, aipa ditzaket: 1978an “Fonetika baturantz”; 1979an “Euskara normalizatuaren ahoskatzeaz”; 1980an *Euskal Fonologia*; 1982an “Euskalkien fonetika eta euskara batua”; 1984 *Euskal Azentuaz*; 1992an “Fonologiaren normalkuntzaz” eta hurrengo urteetan argitaratutako hainbat.

Lan horietan guztietan ageri da ahozko euskara batuaren arazoa eta Txillardegik duen kezka:

“ahozko euskara inoiz baino okerrago dago gaur; erdal interferentziak azkartu eta ugalduta-ala, euskal sena ahuldu eta suntsitu baita euskaldunik gehienengan...Euskara Batua, beraz, idatzian finkaturik, gelditu ondoren, maila mintzatuan ere behar da finkatu; eta azkar gainera...” (1980, hitzaurrean).

1978an Euskaltzaindiak Bergaran antolatu zuen Biltzarrean Txillardegik bi txosten aurkeztu zituen. Lehenean, 1968ko Mitxelena txostenean, idatzirako proposatzen zena irakurtzekoan egin beharreko ordezkatzeei buruz egiten dituen oharrak bere egiten ditu *Ebakeraz* izeneko 2. puntuan: e.b., kontsonante afrikarien aldameneko herskari ahostunehoskabetzea «aizkorri, ozpera»¹⁰.

Bigarrean, berriz, bokal eta kontsonanteen ebakeretatik abiatuta, hiztunok eskuarki egiten ditugun ordezkatzeko fonologiko hedatuenak ditu aipagai. Horietako zein hobesten duen adierazi ondoren, Ahoskera Baturako proposamen batzuk egiten ditu.

Azentuaz dihardu azken puntuan. Arazo nagusitzat jotzen du Txillardegik azentuarena eta honi buruz, esaten digu beste txosten berezi eta oso bat merezi duela.

1980an argitaratu zuen *Euskal Fonologia* liburua mugarri izango da. Batetik, euskal filologia ikasten zutenek oinarritzko zerbait euskaraz behar zutelako eta hutsune hori betetzera etorriko da liburu hau, eta bestetik, egiten dituen ekarpenengatik.

Ahozko euskara batuaren arazoa eta Txillardegik duen kezka:

“Ahozko euskara inoiz baino okerrago dago gaur; erdal interferentziak azkartu eta ugalduta-ala, euskal sena ahuldu eta suntsitu baita euskaldunik gehienengan ...Euskara Batua, beraz, idatzian finkaturik, gelditu ondoren, maila mintzatuan ere behar da finkatu; eta azkar gainera ...”

**1980an argitaratu zuen
Euskal Fonologia liburu
mugarri izango da.**

**Euskal hotsen
deskribapena egiteaz
gain, Europako
estrukturalismoaren eta
lehen fonologia
sortzailearen
ikuspuntutik egindakoak
ere biltzen ditu.**

**Ahoskera Baturako
proposamenak egiten ditu
Bergaran 1978an
“Fonologia Baturantz”
izeneko artikuluan.**

Liburuaren lehen partean (helburu didaktikoa du argi eta garbi) euskal fenomeno fonetikoaren deskribapena egiten du Gavel, Larrasquet eta Mitxelenaren lanak kontuan hartuz; esperimentu bidezko fonetikari lehen ekarpenak (N. Tomás eta Larrasquetenak euskarari buruz egindakoak, eta Delattre, Avram, Quilis, Ladefoged eta Fantenak beste hizkuntzetan eginak, bokalen diagrama eta guzti) eta euskal hotsen deskribapena egiteaz gain, Europako estrukturalismoaren eta lehen fonologia sortzailearen ikuspuntutik egindakoak ere biltzen ditu.

Liburuaren bigarren partean, berriz, (ez dugu ahaztu behar, unibertsitatean euskarazko irakaskuntza-beharrei erantzuteko, guztia euskara hutsez burututako lehen eskuliburu mardul eta sendoa dugula Euskal Filologia ikasketetan irakasle-ikasleek urtetan erabilia) nola teoriaren aldetik hala azterketarenetik SPEn¹¹ proposatzen den azterketa fonologikoan oinarrituz azaltzen ditu euskarazko ordezkatzak eta erregela bidezko formalizazioa egiten du Euskara Batuaren Ahoskerari dagozkion oinarriak jartzeko Lehen Fonologia Sortzailearen arabera.

Burututako azterketa fonologikoan oinarrituta, Ahoskera Baturako proposamenak egiten ditu Bergaran 1978an “Fonologia Baturantz” izeneko artikuluan definitutako ereduan lur hartuta, baina zenbait puntu osatuz, beste zenbait zehaztuz edota aldatuz.

Aipagarriak dira liburu honetako ekarpenak:

- Azentu-unitateen gutxieneko zerrenda segurua eskaintzen du azalpenak emanez.
- Aldizka, bereziki euskal aspirazioaren kapituluan, euskal aspirazioari buruzko argibideak ematen dituen arren, azentuaren *arazo nagusi* horrek ikerketa gehiagoren beharra duela diosku (437 or.).
- Euskal eta erdal fonologiaz diharduen kapitulua (XXIII) argigarria da oso bete-bete sartzan baita euskararen erdaratzean fonetika eta fonologia alorretan: a) ziztukari eta txistukariaren ahoskeran gaztelaniaren eragina hegoaldeko euskalkietan eta frantsesarena iparraldekoetan; b) yeismoa hartzen ari den indarra eta ondorioz horren dakarren galera eta, c) kontsonante bilkuretako ebakera arrotza dela-eta: “*euskara berri hori erdara hutsa ote den galdera egiteko momentua etorri da*” dio (377 or.). Uste baitu ahoskera-aldakuntza horiek erdaren eragin bortitzetik datozela.
- Mailegu berrien arazo fonologikoen ari den kapituluan, berriz, aurreko puntuan esandakoak zabaltzen ditu. Hala ere, mailegu berri horien idazkerak arduratzen du ahoskeran eragiten dutelako. Arrisku larria gainera euskal fonetikaren etorkizunerako, gaztelaniaz bezala irakurtzen direlako «erreakzio, eskizofrenia, mundiala», euskal modura irakurtzen jendeak ez dakielako.

Euskaltzaindiari ortoepia zehaztasunez eta berehala finka dezan eskatzeaz gain, liburu bidez eta ikastaroetan irakatsi beharraz ohartarazten du:

“eta ideia nagusi bat hedatzen saiatu beharra dago, jadanik: euskaraz ez dela idatzirik dagoena, bere horretan irakurtzen. Euskaraz, frantsesez edo ingelesez bezala, oso urrun daudela kodigo idatzia eta kodigo mintzatua... euskaraz honelako legeak eman behar dira” (399 or.). “Lege horiek zein diren Euskaltzaindiak behar du erabaki, eta funtzionala izango bada, azkar behar du erabaki” (400 or.).

Berealdiko garrantzia duen puntua dela deritzot. Izan ere, garai honetan euskarazko komunikabideetan eta irakaskuntzan, nahikoa zabaldua zegoen, euskaraz irakurtzean edo “Batuaz” hitz egitean, ez zegoela ezer egin beharrik, zegoen zegoenean idatzia irakurri behar zela, askok, gainera, dotoreagotzat jotzen zuten eta joera hori biziki hedatu zen, ohartu gabe gaztelaniazko fonologiaren arabera egiten zutela irakurketa eta hizketa, euskal fonologiak berea duena apurtuz.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi, erabiltzen dituen gaiak dituzten zailtasunak gaindituz, Txillardegik liburu honetan egiten dituen ahaleginak:

1. deskribapenaren ondotik ahoskera zehazten
2. prosodiaren alderdi zenbait azaltzen (diptongo, hiato, hasperena, azentu unitateak)
3. oharmenari ematen dion garrantzia azpimarratzekoa da. Esaterako «mel» unitatea etabiltzen du «hertz» baino egokiagoa delako oharmenerako.
4. hizkuntza gaitzen fonetika eta fonologiaren beharrianetarako
5. terminologia bera hizkuntzaren barne-barnetik arakatu eta lantzen du.

Geroztik, termino berri zenbait sartu eta aldaketaren bat edo beste egin bada ere, oro har, Txillardegik liburu honetan proposatzen duen terminologia eta alor honetako Mitxelenaen ekarpenak dira nagusi.

Aurrerantzean ere, Txillardegik, etengabe jarraituko du euskal fonologiaren eta azentuaren korapiloak askatzen, areago aztertzen eta zabalitzen. 1981ean “Euskalkien Fonetika eta Euskara Batua” izeneko artikuluan, euskalkien arteko mugak, ezaugarriak, diptongoak, hiatoak,... kate mintzatuako neutralizazio nagusiak azaldu ondoren, prosodiak arduratzen du: intonazioa, azentua (edota tonua) oso gutxi aztertu delako gaur arte... eta prosodiaren arazoak gehiago aztertzea eskatzen du erdalduntzat jotzen diren ahoskerak batean eta bestean entzuten direlako. Artikulu berean, Euskaltzaindiari eskatzen dio, beharra gorria izanik, fonemak eta kate mintzatu osoa nola ahoskatu behar den erabaki dezan.

Oharturik erdal azentuaren eragina ari dela nagusitzen eta ondorioz gero eta arrotzago direla hizkera eta prosodia euskaldunen ahotan prosodiaren arazo zailari gogoz helduko dio bere baitan duen kezka eraginda.

1984an argitaratu zuen *Euskal azentuaz* izeneko liburua¹², fonologiaren osagarri eta mugarri dugu. Ikerketa lan honekin, orain arte fonetika

“Eta ideia nagusi bat hedatzen saiatu beharra dago, jadanik: euskaraz ez dela idatzirik dagoena, bere horretan irakurtzen. Euskaraz, frantsesez edo ingelesez bezala, oso urrun daudela kodigo idatzia eta kodigo mintzatua ... euskaraz honelako legeak eman behar dira” (399 or.). “Lege horiek zein diren Euskaltzaindiak behar du erabaki, eta funtzionala izango bada, azkar behar du erabaki” (400 or.).

1981ean “Euskalkien Fonetika eta Euskara Batua” izeneko artikuluan, euskalkien arteko mugak, ezaugarriak, diptongoak, hiatoak, ... kate mintzatuko neutralizazio nagusiak azaldu ondoren, prosodiak arduratzen du: intonazioa, azentua (edota tonua).

eta fonologia alorretako lanen eskutik aurkeztu dituen Euskara Batua Ahoskatzeko proposamenak mamitzera, gorpuztera eta osatzera dator.

Alegia, hiztunok idatzi batua ahots bihurtzean edo maila zainduan hitz egiterakoan zein azentuz eta zein intonazioz egitea eskatzen duen euskarak aztertzen du Euskaltzaindiren proposamenak aurkeztuz honek arauak eman ditzan.

Euskalki guztiak kontutan hartuz, azentu-unitatea definitu, (prosodia-unitate batez ahoskatzen da) eta zedarritu ondoren (klitikoak: proklitiko <eztakite> eta enklitikoak <etxerakoan>, zerrenda zehazten du. Izan ere, azentu-unitatearen mugak ez badira behar bezala kontuan hartzen, berez egokiak diren erregela fonologikoez desbideratze larrira eraman baitezakete.

Mendebaldeko azentu-bidea hautatu behar dela iruditzen zaio, liburuan zehar ematen dituen hainbat arrazoiaren eskutik eta azentu-unitateari ezarriko litzaiokeen erregela nagusia ere formulatzen du.

Asko dira liburu honetako ekarpenak baina azpimarratzekoa da duen balioa, oro har, azentua (*ad cantus*-etik datorrena) zentzu zabalean hartuta¹³, egiten duen azterketaren mesedetan.

Aipatzekoa da ikerketa honetan behin eta berriz hiztunon oharmenari ematen dion nagusitasuna, ikerketa akustikoen gabezia eta horien beharra nabarmena izanik ere, burupide ezin hobeaz, garbi aditzera ematen du, datu akustiko horiek besterik gabe ez digutela soluzioa ekarriko, areago, makinek (gaur egun ordenagailuetako programek esango genuke) jasotzen dituzten ñabardura guztiak —garrantzizko izanik ere—, hiztunen oharmenerako bereizgarri eta bereizle ez badira, balio linguistikorik ez dutelako izango da. Bestalde, euskal prosodiaren korapiloak askatzeko azalpen linguistikoa eraiki beharra garden azaltzen du.

Bestalde zientzi literatura guztia ezagutzeari eta euskal prosodiaren ikerketara ekartzeari ezinbesteko deritza, bide berriak zabaltzen dituztelako eta ikustezin diruditen gorabeherak argi berriz ikusten laguntzen digutelako euskal azentuaren ezagueran.

Ikerketa-lan honen ekarpenak asko izanik ere, zenbait, behintzat aipatu nahi nituzke:

1. Mitxelena proposatzen dituen lau azentu-ereduak bitan biltzen ditu: mendebaldekoa (W) eta ekialdekoa (E).
2. Proposatzen dituen ereduak bereizteko azentu-joera nagusia hartzen du aintzakotzat: mendebaldeko azentuaren joera ezkerretik eskuinerakoa litzateke eta ekialdekoa berriz, alderantziz.
3. Lehenetarikoa da bokal harmonia, silaba-egitura, erritmo-unitateak, ... aztertzen dituen prosodiaren argitan.
4. Ezaugarrien artean, Zuberoako azentu-molde azkarrenetakoa izanik ere, lauagoa eta berdina da gaztelaniazkoa baino.
5. Azentua aldakorra kokalekuari begira eta ez da erabat sistematikoa lexikoan eta gramatikan.

6. Euskal silabaren azterketan, eskola sortzailearen ikusmoldetik egindako lehen lan teorikoa dugu. Silaba-egitura azentu-kokagunearekin lotzeko erabiltzen du Teoria Metrikoa.

7. Euskalki guztietan bat datozen ezaugarriak eskaintzen dizkigu: besteak beste, klitikoaren zerrenda.

8. Bokal-harmonia eta azentu-unitatearen arteko lotura egiten du.

9. Datu akustikoak azalpen linguistikoaren mesederako direnez eta azalpen horretan oharmena nagusi den neurrian, azentuaren oharmenean jakiteko zein zen izari nagusia FOren oinarritzko maiztasunaren eta euskal azentudun silabaren pertzepzioaren artean dagoen korrelazioa aztertzeko test bat egiten du. Parte hartuko dute 15 euskaldun zahar eta 15 euskaldun berrik. Ondorioetako oharra garrantzi handikoak dira euskalkien azentu kontuen gorabeherak argitzen dituelako.

Txillardegik egindako ikerketa-lanen ondorioz Euskara Batuaren Ahoskera kontuak aztertutak eta argitutak zeudelako ustea zabaldua baze- goen ere, Euskaltzaindia luzatuko da eginkizun horretan.

1986an Euskaltzaindiak “Euskal Ebakeraz” Durangon egin zituen jardunaldien amaieran, ahoskeraren inguruko arau-gidari batzuk eskatu zizkioten irakaskuntzako eta irriti-telebistako zenbait esatarik. Horien artean zen Txillardegik ere. Euskaltzaindiak erantzun zuen “gerora gabe poliki-poliki egin beharreko lana zela”. Horiek horrela, urte betera, berriz ere, UEUn, Txillardegiren gidaritzapean “Azentuaz eta Ahoskeraz” egin zen biltzarren amaierako ondorioetan nabarmendu zen, batetik, gidaritzaren beharra erabiltzaileen artean berealdiko nahastea zegoelako ahoskera kontuetan, bestetik, lanak aurreratutako zeudela, eta azkenik, Euskaltzaindiari eskaera zehatza egin zitzaien, alegia, behingoz eman zitzan Ahoskera Batuari buruzko arau zehatzak.

Eskaerak eskaera, Euskaltzaindiak 1993an eratu zuen Ahoskera Batzordea. Patxi Altuna zuen buru eta Txillardegik batzordekideen artean.

Azkenean, 1998ko ekainean onartu zuen Euskaltzaindiak Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ). Ezin uka, beraz, alor honetan ere, Txillardegik lanaren poderioz ereindako hazia ernatu eta hasia dela uzta ematen.■

OHARRAK

1. Mitxelena (1968), “Linguistika berriaren berri onak” JAKIN. “Txillardegik dugu, nik dakidanez, linguistika “berriaz” gure hizkuntzan mintzatu den idazle bakarra” (1972, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 192, Ed Mensajero. Bilbo).

2. *Euskararen Aldeko Borrokan*, 2004, 13 or. Elkarlanean, S.L.

3. O. C., 14 or.

4. O. C., 15 or.

5. O. C., 19 or.

6. O. C., 15 or.

1984an argitaratu zuen Euskal azentuaz izeneko liburua, fonologiaren osagarri eta mugarri dugu.

1986an Euskaltzaindiak “Euskal Ebakeraz” Durangon egin zituen jardunaldien amaieran, ahoskeraren inguruko arau-gidari batzuk eskatu zizkioten irakaskuntzako eta irriti-telebistako zenbait esatarik. Horien artean zen Txillardegik ere.

***Eskaerak eskaera,
Euskaltzaindiak 1993an
eratu zuen Ahoskera
Batzordea. Patxi Altuna
zuen buru eta Txillardegi
batzordekideen artean.***

***Azkenean, 1998ko
ekainean onartu zuen
Euskaltzaindiak Euskara
Batuaren Ahoskera
Zaindua (EBAZ). Ezin
uka, beraz, alor honetan
ere, Txillardegik lanaren
poderioz ereindako hazia
ernatu eta hasia dela uzta
ematen.***

7. O. C., 21 or.

8. *Euskara Batua zertan den* (1974), *Sustrai bila* (1970), *Oinarri bila* (1977), *Euskal Gramatika* (1979),...

9. *Euskal Fonologia* (hitzaurrean). EV argitaletxea. Donostia.

10. "Euskera", XXIV, 61 or.

11. N. Chomsky eta M. Halle (1968) *The Sound Pattern of English*

12. Elkar. Donostia.

13. *Hitzak ahots bihurtzean, hotsak denboran barrena erritmikoki uztartzeko erabiltzen dugun musika: doinu gorabeharak, erritmo unitateak, nabarmentze-guneak, hotsen iraupena,...* azken buruan, *prosodia esango genuke. Eta prosodia ez da azentua bakarrik, azentua du bere osagaien artean, baina ez da azentua: hizketaren alderdi musikala osatzen duten elementuen bilduma hartuko luke bere barnean.* M. L. Oñederra, "Euskera" XLIII, 1998, 2, 440.